

Gaizkian maisuak

Koldo SAGASTI

Soldaduetako batek eskuko telefonoa barruraino sartu arte bortxatu du makurrarazitako presoaren uzkia, inguruan bildutakoen txaloek adoretuta. Hondoraino sartutakoan, besteez, barre algaren artean, sega-potoari deitu diote heste lodi barrenetik aparailuaren dei-doinuak jotzen ote zuen konprobatzeko. Horixe da gatibu palestinar batek okupazio armadako militarren eskutik Sde Teiman atxiloteta zentroan pairatutako bortxaketa basatiaren testigantza eta azken asteotan Israelgo iritzi publikoan kalapita piztu duena. Eta polemika ez da piztu, hain zuzen, horrelako gertaerak ezohikoak izateagatik; aitzitik, preso palestinarren aurkako tratatu txarrak eguneroko kontua dira Israelgo presondegietan. Oraingo honetan, aldiz, ezohikoa izan da bederatzi soldadu atxi-

lotu dituztela (eta ordu gutxiren buruan aske utzi) egindako abusuengatik, eta horrek debate bizia eragin du hango hedabideetan, ez palestinarrak bortxatzeko pertinentziaren inguruan, baizik eta ohiko jarduera horrek legeztatua eta sistematizatua izan beharko ote lukeen ala ez. Atxilotetatik ordu gutxitara ultraeskuindar suminduek Sde Teiman base militarra erasotu zuten atxilotutakoe-kin elkartasunean, bortxatzaileetako batek elkarrizketa eskaini zuen telebis-tan bere ekintza kriminala defendatzeko, Ben Gvir Espetxeetako Ministroak berak erasoa defendatu eta erasotzaileak hauspotu egin zituen, eta Yehuda Schlesinger kazetari famatuak 12. kana-leko kameran aurrean defendatu zuen palestinarren bortxaketa, ez bakarrik zi-legitua, “instituzionalizatuta” ere egon

beharko litzatekeela. Zurrumbilo horre-tan, aipatutako kanalak ikusleen artean egindako inkesta batek agerian utzi zuen gehiengo zabal batek egoki ikusten duela gatibu palestinarrak bortxatzea, ipar morala guztiz galduta duen gizarte gaixo baten seinale.

Duela bost urte Eran Efrati, Researching the American-Israel Alliance era-kundearen sortzailea, Eusko Legebiltza-rreko Giza Eskubideen Batzordera gonbidatu zuten. Bere mintzaldian, Is-raelekiko armagintza arloko harrema-nak ikertzera dedikatzen den erakunde horren arduradunak salatu zuen Ertzain-tza Guardian Homeland Security kon-painia israeldarrean trebatzen dutela, Sde Teimanen aski ezagunak diren tekni-keetan. Hortxe dute, nonbait, batzuek eta besteez zoru etikoa. •

Hanka-hutsik doanaren zapatetan

Badut mania txar bat: inguruan gertatzen dena ulertzeko beharra. Esaten da bestearen zapatetan sartu beharra da-goela hark egindakoak, esandakoak, era-bakitakoak hobeto ulertu ahal izateko. Saiatu naiz ariketa egiten, baina zenbai-ten zapatek latz estutzen dizkidate oi-nak eta ez zait odolirik iristen burura. Mi-na ematen didate eta ezin dut pentsatu. Eta pentsatu gabe, ezin inor ulertu.

Donostian emaztea labanaz erasotu duen ertzainaren zapatek nolako estua-suna. Gaueko ordu txikietan, emaztea eta alaba txikiak erasotu ditu. Epaileak kargu hartu dio, baina ez daki oso ondo nola egin. Hilabete batzuk dira emaku-me bezala erregistratu zela eta... Ezin naiz bere zapatetan kabit.

Begiratu dut handik eta hemendik, irakurri dut hau eta bestea, baina ezin. Zapaltzaile bat ikusten dut ertz guztietatik. Ez diot generorik igartzen, baina be-re jarduteko moduan tratatu txar emaile bat begitantzen dut. Bere etxekoan loa labana batekin hausten duenak ez du tratatu onik emateko ohiturarik.

Aldiz, albistea irakurri nuenetik era-soa jasan zuen emakumearen zapateta-tik ezin naiz atera. Gaueko ordu txikie-tan, besoetako haurra hartuta alde egin zuen etxetik, beste alaba erasotzailea-ren esku utzita. Martuteneko kartzelan lanean zeuden ertzainei eskatu zien la-guntza, bikotekideak labanaz erasotu zuelako. Piperbeltz-gasa jaurti omen zion erasotzaileari eta horri esker lortu zuen etxetik alde egitea.

Atxilotu zuten ertzain erasotzailea, eraman zuten epailearen aurrera eta li-bre, karguekin. Eta? Etxera bueltatu zen? Afaritarako tuperren bat bilatu ote zuen hozoailuan?

Gaueko ordu txikietan alaben loa zaintzen duen emakumea ikusten dut, piperbeltz-gasa eskura duena, badaez-pada. Arriskua etxean bertan duela jaki-tun denaren arnasestua sumatzen dut. Erasotzailearen aurrean babesa kamus-tua duen emakumea ikusten dut.

Segur aski ez dugu lur eremurik parte-katzen emakume horrek eta biok, ez mundu ikuskerarik ez balio sozial eta politikorik. Baina gaueko ordu txikietan hanka-hutsik etxetik alde egin behar duen emakume bat da, beste asko beza-la, eta bere zapatetan jartzen naiz. •

Amagoia MUJIKATELLERIA